

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2022ko maiatzaren 24ean ondorengo Dekretu hau eman duela:

“2022 eta 2023ko Pentekoste jaietan -2022ko maiatzaren 25etik ekainaren 8ra bitartean- (azken hori barne) eta 2023. urtean, urte horretako martxoaren hasieran zehaztu eta jakinaraziko diren egunetan- Bergarako kanposantzuaren ondoko lursailean feria, jostaleku eta postuekin lurzorua okupatzeko baimena izapidetzeko deialdia ireki zen. Deialdian parte hartzeko azkenengo eguna maiatzaren 19a izanda, Kontratazio Mahaia 2022ko maiatzaren 19an, 13:30etan, bildu eta lizitatzailerak bakarren proposamena ireki zuen.

Lizitatzailerak bakarra izanda eta baldintzak betetzen zituela kontsideratuta, Baldintzen Pleguko 4.3 atalean zehaztutako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua luzatu zitzaion. 2022ko maiatzaren 24an, Alberto Dominguez Porta (NAN: 15285108D) jaunak, Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi (IFZ: G20153011) elkartearen izenean eta ordezkartzan, dokumentazio zuzen, forman eta epean aurkeztu du. 200 tiketak ere aurkeztu ditu.

Horiek horrela, honakoa **ERABAKI DUT**:

**LEHENENGOA:** Euskadiko Feriari Autonomoen Elkargoari (IFZ: G20153011) Pentekoste jaietan -2022ko maiatzaren 25etik ekainaren 8ra bitartean- (azken hori barne) eta 2023 urtean feria eta atrakzioak Baldintza Agirietan jasotakoaren zein lizitatzailerak eskaintakoaren arabera jartzeko baimena adjudikatzea.

Adieraztea 2023 urteko baimena Baldintzen Agirietan jasotako dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean aitortzen dela.

**BIGARRENA:** Gogoraraztea, halaber, feriarrien etxe mugikorak edo karabanak Tellerian jarri beharko direla denak, udaletik emandako baimen-txartela bistan jarri beharko dutela eta debekatuta dagoela beste edozein tokitan jartzea edo kokatzea. Hartara, Euskadiko Feriari Autonomoen Elkargoari (IFZ: G20153011) eskatzea Tellerian kokatuko direnen identifikazio datuak (izen-abizenak, NAN zenbakia eta feria konkretuaren izena).

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri ematea Euskadiko Feriari Autonomoen Elkargoari eta Udaltzaingoiari.

**LAUGARRENA:** Argitaratzea udal webgunean.”

#### Ebazpenaren aurkako bideak

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.*

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.*

**LEGE-OINARRIA:** Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atala eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko maiatzaren 25a.

IDAZKARIAK

